
Eguneraketa
2022/09/20
Actualización

§A4

**NORMA FORAL 12/1986,
DE 15 DE DICIEMBRE,
SOBRE SIGNOS DE
IDENTIDAD DEL TERRI-
TORIO HISTÓRICO DE
BIZKAIA**

**JATORRIZKO BIZKAI-
LURRALDEAREN
NORTASUN-ADIERAZ-
GARRIEI BURUZKO
ABENDUAREN 15EKO
1986/12 FORU ARAUA**



NORMA FORAL 12/1986, DE 15 DE DICIEMBRE, SOBRE SIGNOS DE IDENTIDAD DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

(Anexo al BOSV nº 297, de 27 de diciembre de 1986)

EXPOSICION DE MOTIVOS

El Estatuto de Gernika reconoce de forma inequívoca los Regímenes Forales específicos y privativos de los Territorios Históricos que integran el País Vasco, habilitándoles para conservar o, en su caso, restablecer y actualizar sus Instituciones de autogobierno.

En ejercicio de dicha potestad, estas Juntas Generales de Bizkaia regularon la estructura orgánico-institucional básica del Territorio en la Norma Foral de Organización, de 5 de enero de 1983, regulación que fue desarrollada y completada posteriormente mediante la Norma Foral de Gobierno y Administración y el propio Reglamento de estas Juntas Generales.

Se echa en falta, sin embargo, la clara fijación normativa de algunos signos de identidad esenciales del Territorio como pueden ser el de su propia denominación, bandera y escudo.

Suplir esa carencia es precisamente la finalidad principal de la presente Norma Foral. Tiene como objetivo fijar la denominación y unificar la representación gráfica de la bandera y escudo del Territorio Histórico de Bizkaia, conjugando el respeto a una tradición y a una indudable realidad presente. Asimismo se pretende regular la utilización de dichos emblemas tanto por instituciones y organismos públicos como privados.

Cabe subrayar la actitud de máximo respeto hacia la propia historia que esta Norma Foral pone de manifiesto, al garantizar la pervivencia de los escudos adheridos a monumentos y edificios de valor histórico-artístico así como de las enseñas al uso, que ya forman parte del acervo histórico de nuestro pueblo. No obstante, se adoptan las providencias necesarias para que, en el plazo prudente fijado por la Norma, las Instituciones obligadas al uso del escudo y bandera de Bizkaia ajusten los materiales de uso ordinario en que deban figurar a lo que en esta Norma Foral se establece.

JATORRIZKO BIZKAI-LURRALDEAREN NORTASUN-ADIERAZGARRIEI BURUZKO ABENDUAREN 15EKO 1986/12 FORU ARAUA

(297 zenbakidun BJB0aren eranskina, 1986.eko abenduaren 27koa)

ZIOEN ADIERAZPENA

Gernika'ko Estatutoak, ezpai barik baieztan dauz Euzkadi osotzen daben Lurraldeen Foru-Jaurpide berarizkoak, euren Jaurtze-Erakundeek zaintzeko edo egoki danean ber-azarri edo garaian-garaikotzeko dabezen eskubideak autortuz.

Bizkai'ko Batzar Nagusiek, aginte ori erabilliz, 1983.gnko. urtarrillaren 5'eko Foru-Erakundeen Antolakuntzarako Foru-Araupidez egokitu eben Lurraldearen oiñarrizko Erakunde-egiturea, geroago Jaurpide eta Arduralaritzarako Foru-Araupidez eta Batzar Nagusien euren Araudiaren bitartez osotu eta garatuko zana.

Lurraldearen izakerazko nortasun-adierazgarri batzuk ostera, bere izen, ikurrin eta ikurdia adibidez, arau argiz jarri eta mugatu bearra be garbi nabaitzen da.

Izan be uts-une hori betetzea da ba Foru-Araupide honen helburu nagusia. Oiturei zor iaken itzala eta oraingo izaera baztertu-eziña alkarregaz buztartzea; Erri-izena erabagi eta Biz'kaiko ikurrin-ikurdien irudi-itxurapenak zeaztazunez zeintzuk diran jartea dau elburutzat.

Azpimarratzekoa da Foru-Araupide onek gure edestiarri dagertson itzal eta begiramenik gorena, kondaira-edertasunez bereizgarriak diran etxe eta oroigarrietan agertzen diran ikurdiak eta gaur-egun erabilgai diran ikurrak, geure Erri onen kondaira-altxorak izanik, euren iraupena zaintzen dauanean. Alan be, Foru-Araupide onen bitartez erabagiten dan epe egokiaren barruan, Bizkai'ko ikurdi eta ikurriña erabiltera bearturik dagozan Erakundeak, aukeratuak izan diran aginduetara oiturazko erabilgaiok lotu dagiezan, bearrezkoak diran neurriak artzen dira.

No parece necesario extenderse en la fundamentación de la competencia de estas Juntas Generales para establecer la regulación de que se trata, ya que deriva sin dificultades de la reiterada proclamación estatutaria de la potestad autoorganizatoria del Territorio, de la que constituye un aspecto más. En este sentido, el reconocimiento de las enseñas propias de los Territorios Históricos contenido en el artículo 5.2 del Estatuto de Gernika viene a ser una mención particularizada de la habilitación general contenida en los artículos 3, 24.2 y 37.1 y 2 indudablemente comprensiva del aspecto que nos ocupa.

TITULO I DENOMINACIÓN¹

Artículo primero

La denominación oficial del Territorio Histórico es el término euskérico "BIZKAIA".

TITULO II DE LA BANDERA

Artículo segundo

La bandera de Bizkaia es la tradicional de color carmesí, figurando en el centro de la misma el Escudo del Territorio Histórico de Bizkaia.

Artículo tercero

La bandera de Bizkaia se utilizará en los términos previstos en la legislación vigente.

TITULO III DEL ESCUDO

Artículo cuarto³

El escudo de Bizkaia responderá a la siguiente descripción: en campo de plata, un roble de sinople, fustado de su color, asomando de su copa los tres cabos de la cruz, de gules. Bordura general de oro, cargada con ocho aspas de gules.

Batzar Nagusien gaitasunoiñarrietan sakontzea ez da la bearrezkoa dirudi erabagiok artzeko eskubideak jarterakoan, Estatutoan ainbat aldiz, bere ikuspegietariko bat orixe dalarik, Lurraldeak bere erakuntzarako eskubide lez ezetariko eragozpen barik agertzen baita. Zentzun orretan, Jatorrizko Lurraldeikurrak onartzea, Gernika'ko estatutoaren 5.2 atalak diñoanez, lege orren 3, 24.2 eta 37.1 eta 2 ataletan daurkiguzan erabagi orokorrangoak bereiztea baiño ez da, beraz zalantza barik, eskuartean darabilgun arazu onen giltza.

I IDAZPURUA IZENA²

Leenengo Atala

Jatorrizko Lurraldearen IZENA, euskarazko "BIZKAIA" itza da.

II IDAZPURUA IKURRIÑA

Bigarren Atala

Bizkaï'ko IKURRIÑA, bere erdi-erdian Lurralde onen ikurdia daroan oiturazko margo gorrigorrizkoa da.

Irugarren Atala

Bizkaï'ko ikurriña, indarrean dagozan legezko arauetan agertzen dan lez erabiliko da.

III IDAZPURUA IKURDIA

Laugarren Atala⁴

Bizkaï'ko ikurdia, urrengo zeaztuten dan lez egokitzen da: Zidarrezko landan, aritz orlegia, enborra bere kolorean dauala; adaburuan gurutzearen iru ertz gorriak. Urrezko ertzegala, zortzi astalki gorrigaz.

¹ Ver Ley 19/2011, de 5 de julio, por la que pasan a denominarse oficialmente "Araba/Álava", "Gipuzkoa" y "Bizkaia" las demarcaciones provinciales llamadas anteriormente "Álava", "Guipúzcoa" y "Vizcaya" (BOE nº 160, de 6 de julio de 2011)

² Ikusi 19/2011 Legea, uztailaren 5ekoa, lehen "Álava", "Guipúzcoa" eta "Vizcaya" izeneko probintzia-barrutiak Araba/Álava, Gipuzkoa eta Bizkaia ofizialki izendatzen dituzana (2011ko uztailaren 6ko BOE, 160. zk.)

³ Redactado conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2007, referenciada en § E4

⁴ 2007/5. Foru-Arauaren araberako idazkera. § E4an agertzen da

El escudo irá circundado por una corona de hojas de roble con bellotas de oro.

Artículo quinto

El escudo de Bizkaia habrá de figurar en:

1. El centro de la bandera del Territorio Histórico.
2. Las publicaciones oficiales de las Instituciones Forales.
3. Los diplomas o títulos de cualquier clase expedidos por las Autoridades del Territorio Histórico.
4. Los documentos, impresos, sellos y membretes de uso oficial por las Instituciones Forales del Territorio Histórico.
5. Las edificaciones y establecimientos oficiales de Bizkaia en que así se determine.

Artículo sexto

La utilización circunstancial de los emblemas representativos de Bizkaia por parte de particulares e Instituciones o Entidades públicas o privadas, requerirá la aprobación expresa de la Diputación Foral, previo el cumplimiento de los requisitos y trámites que reglamentariamente se determinen.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.- Se autoriza a la Diputación Foral a dictar las normas necesarias para la aplicación de la presente Norma Foral.

Segunda.- Reglamentariamente se determinarán las especificaciones técnicas y características materiales de los emblemas representativos del Territorio Histórico de Bizkaia.

Tercera.- No obstante lo dispuesto en la presente Norma Foral, se mantendrán los escudos existentes en aquellos edificios caracterizados por su valor histórico-artístico, así como las enseñas actualmente existentes como integrantes de las Historia del Pueblo de Bizkaia.

Cuarta.- A los efectos que procedan, la Diputación Foral dará cuenta al Gobierno Vasco de las disposiciones contenidas en la presente Norma Foral.

DISPOSICION TRANSITORIA

En el plazo de un año a partir de la entrada en vigor de la presente Norma Foral, las Instituciones y Organismos obligados al uso del escudo oficial de Bizkaia y de su bandera, deberán adecuar los utilizados transitoriamente a los modelos oficiales.

Aritz-orrizko ustaiak, urrezko ezkurduak, inguratzen dau ikurdia.

Bostgarren Atala

Bizkai'ko ikurdiaren agertokiak izango dira:

1. Jatorrizko Lurralde-ikurriñaren erdi-erdian.
2. Foru-Erakundeen Legezko argitalpenetan.
3. Jatorrizko Lurralde-Agintariak emondako ikasketagiri eta gaitasun-agiri guztietan.
4. Jatorrizko Lurraldeko Foru-Erakundeek legez erabili bearrekoak dabezen agerkai, irarki, ikurratz eta orriburu-idazkUNETAN.
5. Erabagiten dan Bizkai'ko Agintari-etxe eta Erakunde-Egoitzetan.

Seigarren Atala

Norbanako eta Erakundeek, baita Erri eta bananbanako Bazkunek be, Jatorrizko Bizkai-Lurrealdearen ezagupide-ikurrak erabili aal izateko, Foru-Aldundiaren berarizko onespina izan bearko dabe, araubidez jarriko diran bear-kizun eta biderapenak aurretiaz betez.

ERABAGI GEIGARRIAK

Leenengoa.- Foru-Araupide au betebideratzeko bear diran Arauak erabagiteko baimena emoten iako Foru-Aldundiari.

Bigarrena.- Jatorrizko Bizkai-Lurraldearen ezagupide-ikurren teknikazko zeatzasunak eta egitezko bereiztasunak araubidez erabagiko dira.

Irugarrena.- Foru-Araupide au bete bearrekoa dan arren, zaindu egingo dira kondaira-edertasunez bereizgarriak diran etxeetan agertzen diran ikurdiak, baita oraindik gaur egun Bizkai'ko Erri-edestiaren urrats lez geratzen diran ikurrak be.

Laugarrena.- Bidezko izan daitekezan ondorenetarako, Foru-Aldundiak, Foru-Araupide onetako erabagien barri, Euzko-Jaurlaritzari emongo dautso.

BEIN-BEINGO ERABAGIA

Foru-Araupide au indarrean jarri daitenetik asi eta urte beteko epebarruan, Bizkai'ko Legezko IKURDI eta IKURRIÑA erabiltera beartua dagozan Erakunde eta Jardun-Saillak, orain aldibaterako darabillezanak, legezko ereduei egokitu bearra izango dabe.

DISPOSICION FINAL

La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Señorío de Bizkaia.

AZKEN-ERABAKIA

Foru-Araupide au Bizkaiko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen dan egunaren biaramonean asita izango da indarrean.